"ORAINDINO BIHOTZEKO HEGOAK EZ ZAIZKIGU ERORI"

"Desio kadukatuak, halere, ez dira hain mingotsak eta mespretxurik gabe jaurtitzen ditut zakarrontzira etxetik kanpo birziklatze-makinek eralda dezaten mundua".
(Ana Urkiza)

1. Iparrizarrari so

Ilusioz, begirunez, ikasminez eta bestelako sentimendu nahasi batzuez so egiten diogu Ipar Euskal Herriaren egituratze administratibo minimo bat helburu duen gaur eguneko dinamika politari. Bistan da egiazko helburua ez dela, baina, egitura administratiboen sortzea bera, euskaldun identitate kolektiboak geroan irautea baizik. Instituzionalizazioa horretarako tresna bat besterik ez da. Lau instituzio-ardatz planteatu zituen "Batera" plataformak eta haiekin bat egin du Iparraldeko gehiengo politiko-sozialak: Departamendua, euskararen ezagupen ofiziala, berezko unibertsitatea eta Laborantza Ganbera. Frantziako Administrazioa entzungor egiten ari denez gero, eskarien arlo hutsetik ekintzen arlora igarotzeko pauso batzuk iragarrita daude eta beste batzuk ematen hasiak dira, hala nola Departamenduari buruzko erreferendumerako urratsak edo

Laborantza Ganbera alternatiboaren sorrera. Azken hau hartu nahi dut orain hizpide.

Ekintzen arloan urrutien joan nahi da hemen: erreplika bat sortu; "de facto"ko Ipar Euskal Herriko Laborantza Ganbera bat egin, herritarron ekimen eta sostengu pribatuaz (baina balizko sostengu publiko bati ateak itxi gabe). Seguraski hegoaldeko askorentzat nahiko gauza bitxia izan da Laborantza Ganbera gainontzeko hiru eskakizun-ardatzen parean ikustea. Berebiziko garrantzia du, ordea. Lehenago esan bezala, lau instituzio-ardatzak instrumentalak dira. Alternatiboki eraikitzen ari den Laborantza Ganbera ere instrumentala da: zerbait berri egiteko tresna da. Zer egiteko, ordea? Nekazaritza-politika berri bat bultzatzeko, hain zuzen ere.

Hala esan dute, argiro, Euskal Laborarien Batasuneko (ELB) sindikalistek irailaren hasieran, Laborantza Ganbera Alternatiboaren aldeko hegoaldeko kanpainaren aurkezpena egin dutenean: Nekazal podukzioaren industrializazio eta kontzentrazio prozesuak aurrera doaz etengabe, MMEren, NPBren eta gainontzeko politika neoliberalen eskutik. Orain artean Iparraldeko laborantzak eutsi izan badio erronkari, kalitaztezko hainbat ekoizpen garatzen lagundu duen dinamika kolektibo eta beneboloari esker lortu da; tokiko ekonomia eta laborantza iraunkor baten alde lan egiten duen 13 elkarte biltzen dituen "Arrapitz" federazioari esker, besteak beste. Baina Arrapitzek ez du sostengu publikorik, eta Pirinio Atlantikoko Laborantza Ganberak MMEren eta NPBren orientazioak indartu, besterik ez du egiten. Laborantza Ganbera Alternatiboarekin bestelako nekazaritza, egiazko nekazaritza iraunkorra, bultzatu nahi da. Oraintxe pauso hau ematen ez baldin bada, urte gutxiren buruan desagertuko dira, guztiz, nekazaritza iraunkor bat garatzeko ahalbideak oro. Ez dago tremendismo izpirik aurreko hitzetan. Ahots askok eta oso ezberdinek azpimarratu dute gai hau zein serioski landurik dagoen ELBren planteamenduetan eta dossierretan.

Laborantza Ganberaren garrantziaz ezezik, Iparraldeko egituratze administratiboaren borrokaren kontestuan gai honek duen lekuaz konturatu ahalko ginen dagoeneko. Ez bistatik gal Herri gisa irautea dela kontua. Herri batek, geroa edukiko badu, egiazko lehen sektore produktibo bat behar du, eta ez nolanahikoa. Horixe dugu jokoan.

2. Hara iparra, hona hegoa!

Iparraldean Laborantza Ganbera bat nahi dute, beste modu batera esanda, nekazaritza-politikarako izaki instituzional bat, zertarako eta nekazaritza-politika ezberdin eta bestelako bat bultzatzeko, alegia. Gainera, nahikari hura Euskal identitate kolektiboaren geroaren kontestuan agertzen da nabarmenki.

Hegoaldean badugu aspalditik nekazaritza arloan eskumen dezente dituzten berezko egitura politiko-administratibo batzuk. Galderok berez datozkigu: Zertarako erabiltzen da Hegoaldeko nekazaritzazko maila instituzionala? Zer nolako nekazaritza-politika egiteko? Herri ikuspegi batetik, hots, Euskal Herriaren identitate kolektiboak duen etorkizunaren ikuspegi batetik, zer egiten ari da? Azken galdera hau ez dago lekuz kanpo, behintzat Euskadiko Autonomia Erkidegoari buruz ari bagara. Bestelakoa izan daiteke Nafarroako Foru Komunitatean, baina EAEko agintarietan badago, edo egon beharko luke, "herri ikuspegi" bat, agintari horietatik gehienek (nekazaritza arloari nagokio) abertzaletzat baitute euren burua. Hemendik aurrerako hitzak, beraz, EAEri, soilik, egokituko zaizkio.

Errealitatea zera da: EAEko botere publikoek egiten duten nekazaritza-politika NPBren politika bera da, funtsean. Alta, ez Europa mailan ez EAEn ez dago, berez, nekazaritza-politika bat, baizik eta politika "agroalimentario" bat, zeinak "agro" osagai tikia duen eta "alimentario", berriz, handia. Produkzio sistema industrialak hobesten eta bultzatzen dira, artisau-produkzio sistemak kaltetuz eta baztertuz (ironikoki, eta lengoaia-

ren perbertsioen bidez, industriek eurentzat hartzen dute "artisau" hitza, gainera babes legaleko monopolioekin). Politika oro transformazioaren eta banaketaren industria handiei begira egiten da, nahiz eta, sarritan, nekazarientzako politikak direla sinestarazi nahi den. (Adibidez, hainbeste miloi euro daramaten ustez nekazarientzako "laguntza zuzenek" industria handiaren finantziaziorako dira, zeren industria handiari ahalbidetzen baitiote prezio baxuetan lehengaiez hornitzea, baina, aldi berean, prezio baxu horiek ez baitizkiote kontsumitzaileari erreperkutitu beharrik. Nekazariarentzako prezioak apaltzen dira, baina kontsumitzailearentzakoak ez. Jendeak uste du laguntzek nekazariak sostengatzen dituztela, baina egiatan industriak ari dira sostengatzen, ez nekazariak). Agroindustriari begirako politika hauek badakigu zer dakarten: produkzioaren eta transformazio-distribuzioaren kontzentrazioa, produkzio eredu intentsibo eta ez-iraunkorrak, nekazarien kopuruaren etengabeko galera, baserri inguruko ehun soziokulturalaren apurka-apurkako suntsipena,...

Irakurleren batek, seguraski, ez dit sinestuko, oso bestelakoa delako berak entzun diena EAEko nekazaritza-politikako arduradunei. Esanak eta eginak, ordea, ez datoz bat, zoritxarrez. Bitxia da, baina hemengo politikoek maiz esan ohi dute amildegi bat dagoela Europako nekazaritza-politikaren esanezko helburuen eta errealitatean egiten denaren artean. Eskizofrenia hori badago Europan, baina ez Europan bakarrik, hemen ere molde berdin-berdintsuan gertatzen baita.

3. Esnea: adibide zuri garbia

Doala, bada, sinesgogorrentzako adibidetxo bat: esnearen azpisektorean zer egin den azken urteetan. Esanguratsua da adibide hau. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak positiboki baloratzen du hemen gertaturiko eboluzioa (errestrukturazioa oraindik "osatu" beharra dagoela dio); eta, gainera, haren ustez positiboak diren emaitza hauek Jaurlaritzaren beraren eta

Foru Aldundien politiken ondorio zuzenak direla dio. Hau guztiau prentsa agiri baten bidez esaten zuen, duela gutxi, Jaurlarizako Nekazaritza Sailak. Prentsa agirian bertan honako datu ebolutibo hauek ematen ziren 1992-2002 epealdirako (portzentaiak ez ziren azaltzen, baina nik neuk atera eta jartzen ditut zifren ondo-ondoan). Esandako hamar urtekoan hauxe gertatu da:

- Behi-esnearen ustiategien kopuruak % 72 egin du behera (6.300 ustiategitatik 1.432ra)

- Esne-behien kopuruak % 45,58 egin du behera (70.962 behitatik 38.621era)

- Ustiategiko behi kopuruak % 139,4 egin du gora (ustiategiko 11,26 behitatik 26,96ra)

- Behiko esne produkzioak (bataz beste) % 46,7 egin du gora (behiko 4.305 litrotatik 6.314 litrotara)

Jaurlaritzak esaten zuen aurreko guztia ona dela, ustiategiak profesionalizatu egin direlako, esne gehiago eta kalitate hobekoa ekoizten dutelarik.

Ez dakit kalitatea, baina, oro har, esne gehiago ekoizten denik ez da egia. Jaurlaritzaren estatistika ofizialek diote, 1992an 312,65 miloi litro ekoizten zirela EAEn, eta 2002an, berriz 254,5 miloi litro; gainbehera, honenbestez, % 18,6koa izan da. Ez da txikia.

Aurreko zifra guztiak hitzetara pasatuz, horra zer gertatu den: a) baserritar ekoizleen galera inportante bat = enpleguaren galera, b) produkzioaren intentsifikazioa eta kontzentrazioa (askoz ustiategi gutxiago baina askoz behi gehiago ustiategiko eta askoz esne litro gehiago behiko), c) azken produkzioaren galera = geure merkatu kuotaren galera (denen artean nahiko esne gutxiago ekoizten dugu EAEn.)

Aurrerago joan gabe ere, orain artekoa nahiko kezkagarria iruditzen zait niri (pentsatzen paratuz gero, esate baterako,

ikusiriko intentsifikazioak eta kontzentrazioak ingurugiroan eta paisaian zer nolako eragina eduki duten), baina gauza gehiago badago oraindik: ustiategien kopuruaren galera handi-handia egon arren, gelditu diren ustiategi gutxien errentak edo etekinak mantentzea ez da lortu; are gehiago: etorkizuna kolokan dute horiek ere. Oviedoko Unibertsitateak egindako ikerlan independiente batean Espainiako behi esnearen ustiategien koste eta etekinak aztertu dira. Bertan azaltzen da Gipuzkoan eta Bizkaian esne ustiategien azken urteetako etekin garbia negatiboa dela (ez dute deus irabazten, galdu egiten dute). Ustiategien kudeaketa tekniko-ekonomikoaz arduratzen diren zentru ofizialen datuek ere halako emaitzak dituzte, nahiz hau guztia isildua izaten den.

Hauxe izan da ekoizleen patua edo halabeharra. Baina lehenago esan dugunez, politika agroalimentarioek agroindustriak dituzte hartzaile mesedetuak. EAEren kasuan, esneari dagokionez, izen bakarra dugu: Iparlat. Munstrotxo hau 1.992an sortu zen, EAEko eta Nafarroako esne kooperatiben fusiotik, Eusko Jaurlaritzaren eraginez eta itzalpean (Iparlateko zuzendari eta buruen artean Nekazaritzako Sailburua eta Sailburuordea izandakoak daude). Harrezkero, "Lactaria Española" eta beste enpresa batzuk erosi, eta handitzen eta handitzen joan da diru publiko asko hartuaz. Gaur egun hedapen prozesuan dago: Kantabriako esne koperatibak bereganatu ditu, Espainia guztian ditu delegazioak, enpresa propioak sortu ditu Chilen eta Mexikon, konbenioak ditu Suiza eta Finlandiako enpresekin, mundu guztian zehar dabil hedatzen, bereziki Hego Amerikan (hamar estatura heltzen da komertzialki), baina baita Afrikan ere (hamalau afrikar estatutaraino heltzen da).

Zer esanik ez: Hego Euskal Herrian "de facto"ko monopolioan funzionatzen du; bera da gaur egun esnearen lehen erosle bakarra. Desagertu dira baserritarren eskuetan zeuden beste egitura komertzial txikiak. Esnearen salmenta zuzena

(ekoizleengandik kontsumitzaileengana) ere ia desagertu da (produkzio osoaren % 15 zen 1992an eta % 4 da gaur egun). Iparlatek hartzen duen esne guztitik erdia baino gutxiago da EAEn ekoitzia.

Ez da harritzekoa aurreko guztia. EAEko esne sektorearentzako politika Iparlati begira egin da. Gorago eman dut adibide bat nola Europa mailan agroindustria finanziatzen den, finantziatuak baserritarrak direla esanaz eta sinestaraziz. Beste adibide bat ekarriko dut EAEn holako gauzak nola egin diren ikusteko. 1996an gertatu zen hau. Badaude aspalditik martxan Europak kofinanziatzen dituen Indemnizazio Konpentsatzaile deituriko dirulagunzta batzuk. Mendi Nekazaritzako eta antzeko handicap natural bereziak dituzten zonaldeetako nekazarientzat daude sortuak. Urte hartan Eusko Jaurlaritzak Indemnizazio Konpentsatzaile "osagarri" bat asmatu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren eta Nekazaritzaren Orientazio eta Bermerako Europar Fondoaren aurrekontuen kontura gauzatu zena. Dirua nekazarien kontu korronteetara ingresatu eta, segidan, handik Iparlaten kontuetara pasatzen zen, aurretik nekazariok sinatutako transferentzia aginduen bidez. Diru asko zen. Kopuru zehatzak jakiterik ez dago, baina badakigu, esate baterako, 10 behi zituen baserritar batek 170.000 pezeta inguru ikusten zituela bere kontutik pasatzen eta berehala ihes egiten. Guztiz, beraz, milaka milioi pezeta joan ziren zuzenki Iparlatera nekazarientzako laguntzen itxurak hartuz. Txarrena da ezen ofizialki nekazarientzako egiazko laguntzak zirela, eta estadistikoki hala agertuko da gaur egun ere.

4. Herri ikuspegiaren bila, herriminez

Ikusi bezala, halakoxea da EAEko instituzioetatik egiten den nekazaritza-politika. Esnea izan da adibidea, baina ildo bertsuetatik doaz -edo eraman nahi dira- gauzak gainerako azpisektoreetan ere. Oraintxe bertan, esate baterako, okelaren sektorean halako makroenpresa bat sortze lanetan ari dira, eta,

bulegoetatik kanpo, oso modu esanguratsuan deitzen diote proiektu berriari: "okelaren arloko Iparlat", diote. Haren bidez, integratu nahi dute okelaren prozesu guztia: produkzioaren arlotik hasita, hiltegien arlotik igarota, eta distribuziora eta merkatalgune handietako salmentara iritsita (EROSKI tartean delarik). Den-dena, Iparlaten antzean, Jaurlaritzak berak ondo kontrolaturiko egitura baten edo batzuen bitartez.

Nekazaritza-politikaren "Herri ikuspegiaz" galdegin dugu gorago. Argi dago Iparraldeko Laborantza Ganbera Alternatiboaren proiektuak zer nolako Herri ikuspegia duen. EAEko administrazioek ere badute, agian, euren Herri ikuspegia, guztiz ezberdina baina. Seguraski, esne sektorari buruzko politika diseinatu eta burutu dutenean, euren Herri ikuspegia eduki dute kontuan, eurek nahi duten moduko Euskadia buruan. Horregatik pentsatu bide dute industriari begira lan egin behar zela eta industria indartsu bat sortu behar zela munduko merkatu "librean" ibiltzeko. Industria potente hark, baina, hemengo esne produktoreak desagertarazi egin ditu; ez du lortu gelditu diren ekoizle apurrak esne produkziotik bizi ahal izatea; ez du lortu hemengo esne produkzioari eustea ere; eta, azken batean, industria ahaltsu hura kanpoko ekoizleen esnea hartzen dabil, geroago eta gehiago. Funtsean, horixe egin da: industria "lehiakor" bat sortu eta EAEko nekazal sektore produktiboa hil. Ez nabil esaten azken efektu hau nahita bilatu denik, baina bai horixe dela, hain zuzen ere, lortutako efektua.

Bestalde, erreparatu beharko genioke Iparlaten benetako izanari: zer nolako politika komertzialak daramatzan Afrikako eta Hego Amerikako herrietan, esate baterako; eta zer nolako eragina duten politika horiek hango nekazal populazioaren baitan. Ez dut uste zertaz harro sentiturik izango dugunik.

Argi dagoena da, egotekotan, bi Herri ikuspegi diferente ditugula. Guk ez dugu nahi gure Herriarentzat EAEko nekazaritza politikan kontuan hartzen ari den Herri ikuspegia. Bestelakoa nahi dugu.

Eta gauzak aldatu nahi genituzke. Mundu mailako gizakien arteko harremanak gizatiarrak (ez bakarrik gizatiarragoak) izan daitezen. Eta bidezkoagoa den Herri ikuspegi bat edukirik, herrien arteko harremanak ere gizatiarrak izan daitezen. Ez dirudi garai onak ditugunik halako aldatze-gurarientzat. Halere, etsipenaren ahotsak ez ditugu entzun nahi. Nahiago ditugu bestelako ahots batzuk aditzea, hala nola, Sánchez Ferlosiorena: "Pero yo os digo que no os entreguéis [...] y, contra toda posible esperanza de victoria, sacad la espada y resistid". Horretan gaude. Oraindik bihotzeko hegoak ez zaizkigu-ta erori.

Jabier Erize

2004ko azaroak 4an.